

# Euskararen Gaitasun Agiria

## EGA

### 2001eko urriaren 6koa A eredia

**1. deitura:** .....

**2. deitura:** .....

**Izena:** .....

**NA zenbakia:** .....

**Euskaltegia:** .....

#### AZTERKETAKO ARIKETEN PUNTUAZIOA ETA DENBORA BANAKETA

Ahozkoaren *ulermena* ariketa burutu ondoren, **2 ordu eta 20 minutu** dituzu azterketa hau egiteko. Denbora nahi duzun moduan banatu eta azterketa nahi duzun ordenan egin dezakezu baina hona, ariketen puntuazioekin batera, aztertzaileek pentsatutako denbora banaketa:

Azpiatala	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	---	---	3 min.
1. IDAZLANA			
Idazlana	25	15	55 min.
Ortografia	5	1	
2. ESALDIAK BERRIDATZI	5	2,5	
3. SINONIMOAK EMAN	5	2,5	25 min.
4. IRAKURMENA	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	---	---	12 min.
Guztira	50	29	2 h 20

Idatz ezazu **garbi eta tintaz**: aztertzaileek ez dute zuzenduko irakurri ezin dena. Ariketa guztietan atera behar da gutxienerako puntuazioa azterketa gainditzeko.

## AHOZKOAREN ULERMENA I

1. *Kike Amonarrizen ustez...*
  - a) euskal eredu-tako matrikulazio kopuruak ez du euskararen erabilera bermatzen.
  - b) Euskal Herrian euskararen ingurura bildu den gazte sektorea ez da oso zabala.
  - c) euskal eredu-tako matrikulazio kopuruak Autonomia Erkidegoan soilik igo dira.
  - d) euskara gero eta gutxiago erabiltzen da.
  
2. *Euskararen erabileraren gaineko globalizazioaren eraginik ba al dago?*
  - a) Ez, gaur egun gure seme-alabek ingelesa etxeko hizkuntzatzat dutelako.
  - b) Bai, orain arteko euskara versus erdara planteamendua aldatu egin baita.
  - c) Ez, ingelesa arrotzegia baita.
  - d) Bai, gaur egun gure seme-alabek lau hizkuntza dakizkitez: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.
  
3. *Zergatik dio Kike Amonarrizek soziolinguistika eta umorea ezin dituela bereizi?*
  - a) Txistek kafetegietan kontatzen direlako.
  - b) Txistek kontatzen dituen jendearekin harremanetan jartzen delako.
  - c) Euskarazko umorea lantzeko izan zituen arazoak soziolinguistikoak zirelako.
  - d) Soziolinguistika eta umorea, biak, gauza berriak direlako.
  
4. *Kike Amonarrizen ustez, zer garrantzi du testuinguruak umorea egiterakoan?*
  - a) Garrantzirik ez du, umorearen emaitza baldintzatzen duena aurrean dagoena baita.
  - b) Garrantzi handia du, umore ironikoaren kasuan bereziki.
  - c) Txistea matxista edo feminista bada, testuinguruaren eraginik ez dago.
  - d) Garrantzi handikoa izan daiteke, baina txistek gizonezkoen elkarte gastronomiko batean kontatzen direnean soilik.
  
5. *Kike Amonarrizek umorearen gaur eguneko egoerari buruz, zer dio?*
  - a) Hizkuntzaren bilakaera euskarazko umorearen araberakoa izanen dela.
  - b) Gaur eguneko umoreak hizkera propiorik ez duela.
  - c) Gaur eguneko umorea esparru guztietara zabaltzeko modurik ez dagoela, erregistro asko falta zaizkigulako.
  - d) Euskarazko umorearen bilakaera hizkuntzarena bezalakoa izango dela.

*Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:*

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

## AHOZKOAREN ULERMENA II

6. *TxistEEK euskaraz grazia izateko...*
- a) euskaraz oso ondo jakin behar da.
  - b) bat-bateko ulermena eduki behar da.
  - c) hitzek erabileraren bidez indarra hartu behar dute.
  - d) hitz guztiak hiztegietan datozen begiratu behar da.
7. *Euskaltzaindiaren arauak...*
- a) beti umorez hartu dituzte.
  - b) pertsonaien "erregistroen" arabera hartu dituzte.
  - c) beti kontuan hartu dituzte.
  - d) gehienetan kontuan hartu dituzte.
8. *Euskarak aurrera egingo badu haur eta gazteei...*
- a) etengabe zuzendu behar dizkiegu akatsak.
  - b) erdararako joera hartzea komeni zaie.
  - c) Zuazo, Sarasola... irakurtzeko esan behar zaie.
  - d) beren behar komunikatiboei erantzun berriak eman behar izatea gerta lekieke.
9. *Txisteen kontrabandoaz, zer dio Amonarrizek?*
- a) Beti izan dela eta izango dela.
  - b) Neurriekin, kontrola daitekeela.
  - c) Interneti esker asko zabaldu dela.
  - d) Garraiolarietara esker asko hedatuko dela.
10. *Kike Amonarrizen proiektuen artean...*
- a) txistegintzak badu lekutxo bat.
  - b) garrantzizkoena soziolinguistika lantzea da.
  - c) "Barre busa" programan txistek kontaktzea dago.
  - d) jubilatzeak ez dauka lekurik.

*Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:*

6	7	8	9	10
---	---	---	---	----

## 1. IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
  - a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
  - b) *hizkuntz aberastasuna eta zehaztasuna;*
  - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik egin dezakezu.*

## ZIRRIBORROETARAKO ORRIA



*Bidai zaletasuna hedabide guztietan gainezka: aldizkarietan, egunkarietan, irrati-telebistetan... bidaiatzeko iragarkiak, erreportaiak eta saio bereziak ere bai.*



*Esaera zaharra:  
"Urrutiko intxaurrak  
hamalan, joan  
bertara eta..."*

Antzinako esploratzaileak eta ameslariak: Marco Polo,

Elkano,  
Cook,  
Livingston,  
Iradier...  
Abenturaren erromantizismoa?




*"Atzerrira gertarako?  
Bazterrik politenak  
etxetik hurbil ditugu  
eta!"*

(Ana Jauregi, Zumaia)



Estatistiken arabera, Euskal Herriko gehienak ez dira kanpora joaten oporretan.



*Urtean zehar aurrezten  
dut, oporretan urrun  
joan abal izateko".*

(Aitor Hiribarren, Iruñea)



Bidaiak egitea aberasgarria da. Beste bizimodu batzuk, kultura batzuk... ikusteko eta ikasteko aukera da.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Bidaiari ala turista? Agentzia bidezkoak eta norberak prestatuak.
- Bidaia: ihes egiteko, atsedean hartzeko, jakin-mina asetzeko...?
- Bidaia ongi antolatua ala abentura gisakoak?
- Bidaiatzea, Mendebaldeko aberatsen apeta?
- Txango zoragarriak, egiteko ala itzulitakoan zer kontatua edukitzeko?

Laster beste diru batekin antolatuko dugu bizitza: Euroa.

«Badakit 6 euro 1.000 pta. direla eta, hortaz, 3 euro 500 pta. Baina hortik gora ez dakit zelan asmatuko dudani!»



Argazkia: BBK, 2001

Europako hamaika herrialdek euren diruen ordezkoa jarri dute abian.



«Arazorik gabien dendariok izango ditugu, hasieran bi kutxa eduki beharko ditugu-eta»

Argazkia: BBK, 2001

«Ez da arazo handirik izango. Lehen ere errealetatik pezetara aldatu zen: 20 errealekoa = 5 pta (ogerlekoa), 1.000 erreale = 250 pta. Laster moldatuko gara»

⇒ Hasieran, soldata jasolzean esaterako, ezusteko galanta hartuko du batek baino gehiagok.

Billeteen aurre-atzeak

	5 EURO 832 pta.
	10 EURO 1.664 pta.
	20 EURO 3.328 pta.
	50 EURO 8.319 pta.
	100 EURO 16.639 pta.
	500 EURO 83.193 pta.

- Monetaren ikurra: €
- 1 euro = 166.386 pta.
- 1 euro = 100 zentimo
- 1999an finkatu ziren balioak
- Milaka milioi billete eta txanpon prestatu dituzte
- 2001eko abenduaren 15etik aurrera denok eduki ahal izango dugu 2.000 pta.ko txanpon pakete bat
- 2002ko urtarriletik ekainera euroak eta pezetak erabili ahal izango dira
- 2002ko uztailetik aurrera euro billeteak eta txanponak baino ez

	1 ZENT = 1,7 pta. 2 ZENT = 3,3 pta. 5 ZENT = 8,3 pta.
	10 ZENT = 16,6 pta. 20 ZENT = 33,3 pta. 50 ZENT = 83,2 pta.
	1 € = 166,4 pta. 2 € = 332,8 pta.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Laster izango dugu diru berria.
- Zelan moldatu aldaketa horren aurrean?
- Zein izan daitezke zailtasunik handienak?
- Zelako abantailak ekarriko dizkigu?
- Nolako ondorioak izango ditu gure bizimoduan?







## 2. ESALDIAK BERRIDATZI

*Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:*

...takoan                      *etorri*takoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

*Hasieran bera errudun..tzat ... jo izanak ..... lotsatu egin ninduen gero ..*

---

1. XX. mendearen hasieran autoa zuenik aurkitzea ia ezinezkoa zen.

..... nekez  
.....

2. “Non dabil, ba, gure mutila?”. Hori izan zen amandarearen galdera.

..... galdetu zigun.

3. Langilea lanetik ezin aberastu daiteke. Aitonak behin baino gehiagotan gogoratu zigun hori.

..... aberasterik .....

4. Oso haserre ere etorri izan zaigu inoiz, nahiz eta gehienetan txantxatan ibili.

..... arren  
.....

5. Bilbo handia izanik ere, igandeetan inortxo ere ez da ikusten.

..... ...gatik .....

6. Gurasoen arteko liskarra konpondu zuen, baina besterik ez zuen lortu.

..... baino  
.....

7. Mikeli zazpi euro eman dizkiogu eta Ainhoari beste horrenbeste.

..... ...na .....

8. Han bakarrik utziz gero, edozer gertatuko zitzaien.  
 ..... gerta ..... •
9. Zure aita iritziz aldatzeko modurik ez dago. Zein kaskagorria den!  
 Hain .....  
 ..... !
10. Meskitan sartzen dira, oinetakoak eranzten dituzte eta ahuspez jartzen dira. Orduan hasten dira otoitzean, ez lehenago.  
 ..... ahala .....  
 ..... arte ..... •

### 3. SINONIMOAK EMAN

*Ondoko esaldietan markatuta dauden hitzen sinonimo egoki bana jarri behar duzu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.*

1. Irratia eta motorra piztu, eta berehala abiatu zen **maldan** .....  
gora, etxerako bidean.
2. Maiz **ezbaian** ..... ibili ohi gara, hitzak frantsesez zelan idatzi behar diren igarri nahian.
3. Itzal hura ikusita **izutu** ..... eta ihesi joan zen.
4. **Hausnarketa** ..... sakona egin ondoren, amore ematea erabaki zuten.
5. Lan guztiak bukatuak zituztelarik, abiatzeko **prest** ..... zeuden.
6. Gizaki guztiek ez dituzte **azturak** ..... bat.
7. **Kaiku** ..... horrek ez du ganorazko ezer egiten.
8. Oso haserre zegoen eta bazter guztiak **suntsitu** ..... zituen.
9. Gaur bezala **setati** ..... jaikitzen denean, ez dago bakerik horrekin.
10. Aurkako taldea **erdeinatu** ..... egin zuten eta azkenean hura atera zen garaile.

## 4. IRAKURMENA

*Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.*

### NATURA, GIZAKIAREN ORGANO-ERRESERBA? XENOTRANSPLANTEEN ETIKOTASUNAZ

**G**ibela, bihotza, giltzurrunak, azal zatiren bat..., bizirik irauteko behar genukeen edozein organo zein ehun Naturatik har dezakegula diote xenotransplanteak ikertu dituztenek. Animalia baten ADN-a aldatzea nahikoa omen da gizakiak errefusa ez dezan. Egia baldin bada, giza organoen emaile urritasuna gainditzeko ate bat zabaldu zaigu. Printzipio etiko onartuenen arabera, ordea, ez dira teknika honen nondik-norakoak hain baikor ikusten.

Inmunosupresoreak hobetu eta ingeniarietza genetikoak aurreratu egin direnez, xenotransplanteak gizakiengan ikertzeko moduan daudela iragarri du zenbait zientzialarik.

Horrek eztabaida etikoa piztu du. Xenotransplanteek orain arteko zenbait printzipio etikorekin egiten dute topo, baita galdera berriak sortu ere. Teknika hau onartzea gizar-tearentzat berebizikoa balitz, nagusi diren printzipio etikoetan zenbait aldaketa gauzatu beharko lirateke, historian zehar beste une askotan gertatu izan den bezala. Oztupo etikoak gaindiezinak balira, ordea, teknika hau debekatu egingo litzateke.

Etika berri behar den, ala egokiena dagoen moduan mantentzea den esatea, hori ez da erraza. Etikoki plurala eta aldakorra den gizarte batean bizi gara eta horrek honelako eztabaidekin gehien adostasuna bilatzera eramaten gaitu beti. Baina zailtasun horrez gain, xenotransplanteek erabakitzeko beste zenbait zailtasun azaltzen dituzte; handiena, egindako ikerketa soziologikoetan horien aldeko eta horien aurkako iritziek duten indarra. Gure helburua zera da, xenotransplanteek ukitzen dituzten printzipio etikorik garrantzitsuenak adieraztea, baita eztabaidaren nondik-norakoak azaltzea ere.

Hamarkada bat baino gehiago behar izan zen gizakien arteko transplanteek (alotransplanteek) orduko etikaren planteamenduen aurrean eragiten zuten arazoa konpontzeko. Gaixoaren eskubideak, hildakoari zor zaion begirunea, immunosupresoreak erabiltzea, nortasuna babestea eta bestelako arazo asko zeuden tartean. Momentu hartan gizartean nagusi ziren printzipio etiko asko garai berrietara birmoldatzea erabaki zen.

Baina alotransplanteentzat eratu zen molde berri horretan ere ez daude xenotransplanteak eroso. Alotransplanteen aldean, hartzailearengan sor daitezkeen ondorio immunologikoak latzagoak dira. Beste espezie baten organoek errefus latza eragin dezakete gorputzean eta txertatutako organoa deuseztatu edo bestelako gaitzak erakarri. Horrez gain, ez dakigu oraindik animalia baten organoak fisiologikoki pertsona baten gorputzaren beharrak era egokian eta denbora tarte luzean bete ditzakeen ala ez.

Kontua zera da, alderdi horien berri zehatzagoa izateko modu bakarra gizakiekin saiakuntza klinikoak egitea dela. Ordenagailuen laguntzaz modelo birtual egokiak garatzen ez diren bitartean, behintzat, saiakuntza kliniko horietan parte hartzen duten gizakiak gizartetik isolatu eta zorrotz kontrolatu beharko genituzke.

Espezieen arteko muga naturalak deuseztatzeak, xenotransplanteen kasuan, gizakiengan orain arte ezezagun izan diren gaixotasunak erakar ditzake. Arrisku horren garrantziaz jabetzeko, gogora ditzagun animaliangandik gizakiengana eratorritako birus eta infekzioen adibide ezagun bi: HIESa eta Ebola birusa. Zuzenbide eta Giza Genoma Katedrak egin dituen ikerketen arabera, biztanleen erdiak baino gehiagok hemen ikusten

dute teknika horien aurkako arrazoirik nagusiena. Xenotransplanteen ikerkuntzak aurrera jarraituko balu, teknika honen edozein saiakuntza klinikok gizartearen interesak babestu beharko lituzke eta saiakuntzen emaitzak etorkizunerako kontuan hartzen dituen erakunderen bat sortu beharko litzateke.

Argi dago xenotransplanteek arrakasta izateko onena zera izango litzatekeela, esperimentazioan eta emaile moduan gizakiarengandik filogenetikoki hurbilen dauden animaliak (primateak) erabiltzea. Eta askoz hobeto errefusa ekiditeko edo organoen funtzionamendua hobetzeko ingeniaritza genetikoa aplikatuko balitzaie. Baina gure kulturak animaliekin duen sentiberatasun etikoak, batez ere primateekin, aukera horiek oztopatu egiten ditu. Primateekin ikerkuntzak egiteko baimenak oso urriak dira eta, bestelako organo emaileen kasuan ere kontuan hartu beharra dago ateratako organo hori gabe animaliak maiz ezin izango duela bizirik iraun. Sentiberatasuna eta argudio ekonomikoak direla eta, txerriak izan dira ugaztunetatik erabilienak xenotransplanteak ikertzeko. Baina filogenetikoki gizakiarengandik hain hurbil ez daudenez, saiakuntza horien emaitzek zalantza ugari erantzun gabe uzten dituzte.

Xenotransplantea helburu duten manipulazio genetikoak ere etikoki mugatuta daude. Orain arte nagusitu diren printzipio etikoek ez dute onartzen animalia-aren fenotipoa (bere espeziekoek duten itxura) eraldatzen duen manipulaziorik. Eta fenotipoa aldatu gabe ere, xenotransplanteetarako onartzen diren aldaketa genetiko bakarrak oztopo immunologikoak gainditzeko helburua dutenak dira. Hortaz, organoen funtzionamendua eta iraupena hobetzeko manipulazioak (arazo fisiologikoak konpontzekoak) egin ahal balira ere, gaur egun ez daude etikoki onartuta.

Kezka etikoak direla eta, alotransplanteek organo beharraren ehuneko oso garrantzitsua betetzen duten herrialdeetan urrun ikusten dira xenotransplanteak gizakiengan saiatzeko baimenak. Beste herrialde batzuetan, ordea, alotransplante bat jasotzeko itxaropenik ez duten pertsonen kopurua handiegia da eta gobernuek ezin diote presioari eutsi. Amerikako Estatu Batuek, Alemaniak edo beste herriren batek laster xenotransplanteak gizakiengan saiatzeko baimena emango dutela uste da. Dagoeneko badituzte beren burua saiakuntzetarako eskaini duten pertsonen zerrenda luzeak.

Herrialde horien egoera ikusita, xenotransplanteen aurkako jarrera itxiak agorrek direla uste dugu. Segurtasun-neurri eta kontrol egokiak antolatzea posible den ikertu beharra dago, baita ondorio immunologiko latzak ekiditeko bitartekorik ote dagoen ere. Baldintza bi horiek betetzeko erarik balego, gure aldetik ez legoke xenotransplanteak gizakiengan klinikoki saiatzeko oztopo etiko latzik. Alotransplanteen kasuan gertatu bezala, bermerik egonez gero, teknika honi ere bere egokitasuna erakusteko aukera eman beharko litzaioke, aldez aurretik epaitu gabe.

Hein berean, saiakuntza klinikoekin hasteko jarri ditugun baldintza biak betetzen ez badira edo, zehatzago esanda, betetzen ez diren bitartean, xenotransplanteak gizakiekin saiatzearen aurka gaude zeharo. Xenotransplanteen saiakuntza berehala, hau da, bermerik gabe hastearen alde dauden interesak oso garbiak ez direlakoan gaude. Horrenbeste interes ekonomiko eta horrenbeste zalantza zientifiko tartean direla, saiakuntza kliniko-etara boluntario aurkeztu diren hainbat pertsonari zer informazio eta zer itxaropen eman dieten jakin nahiko genuke guztiok.

Leire Escajedo San Epifanio  
*ELHUYAR* 159. zenb. 2000ko azaroa  
(Moldatua)

*Ondoko hamar galderetan, aukera ezazu bakoitzean erantzunik egokiena eta dagokion letra koadro honetan ipini.*

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

1. *Zein da egia testuak diosenaren arabera?*
  - a) Giza organoen emaile urritasuna gainditu egin da xenotransplanteei esker.
  - b) Xenotransplanteen teknika ikertu dutenen iritziz, ADNan legoke errefusa ekiditeko gakoa.
  - c) Gaur egun ingeniariak genetikoari esker animalien organoak gizakiari txertatzea inolako arazorik gabe egin daiteke.
  - d) Xenotransplanteak ikertu dituztenek teknika berri honen alde etikoa besterik ez dute ikusten.
  
2. *Xenotransplanteen etikotasunari dagokionez...*
  - a) gure gizarteak onartuak dituen hainbat printzipio etiko aldatu beharko lirateke.
  - b) etikan datza teknika berri honen etorkizuna.
  - c) lehen ere askotan gertatu den bezala, etika berritzea ez litzateke arazo izango.
  - d) oztoporik sortu ezean, teknika hau debekatu egingo litzateke.
  
3. *Zein da testua idatzi duenaren helburua?*
  - a) Etika berritzea edo dagoen moduan mantentzea den egokiagoa argitzea.
  - b) Xenotransplanteen aurkako printzipio etikoak erabakitzea.
  - c) Xenotransplanteek sortu dituzten arazo teknikoak argitzea.
  - d) Xenotransplanteen aurkako printzipio etiko nagusiak eta teknika honen inguruko eztabaidak jakinaraztea.
  
4. *Animalia baten organoa gizakiari jartzeak...*
  - a) hartzaileri gogor erasotzen dio.
  - b) organo berriak pertsonaren beharrak ez betetzea lekarke.
  - c) hartzaileri jasan ditzakeen ondorioak gizakien organoak transplantatzean jasan ditzakeenak bezain latzak izatea eragingo luke.
  - d) hartzaileri ez onartzea eta hainbat gaitz harrapatzea eragin dezake.
  
5. *Zerk emango luke xenotransplanteek sor litzaketen ondorioen berri zehatza?*
  - a) Emaileekin saiakuntza kliniko bereziak egiteak.
  - b) Modelo birtualak garatzen ez diren bitartean, zorrozki kontrolatutako animaliekin saiakuntzak egiteak.
  - c) Egingo liratekeen proba klinikoetan parte hartzailea gizakia izateak.
  - d) Saiakuntza klinikoetan gizarteak isolatutako gizakiak erabiltzeak.

6. *Zein da gizartearen multzo handi batek teknika berri honi oztupoak jartzeko arrazoirik behinena?*
- a) Xenotransplanteek espezieen arteko ezberdintasunak deuseztatu egiten dituzte.
  - b) Lehenago ere beste zenbait gaixotasunekin gertatu izan dena gertatzeko arriskua.
  - c) Animalien eta gizakien arteko muga naturalak desagertu egiten dira.
  - d) Gizartearen interesak babestu beharko lituzkeen erakunderen bat oraindik ez egotea.
7. *Zer dio testuak animalia emailei buruz?*
- a) Primateak erabiltzea dela soluzio bakarra.
  - b) Primateekin egindako saiakuntzei esker dagoeneko emaileen arazoa konponduta dagoela.
  - c) Txerrien organoak erabiliz gero, ez legokeela inongo arazorik xenotransplanteak egiteko.
  - d) Primateak izango liratekeela teknika honen arrakasta bermatzeko egokienak.
8. *Etika dela eta, zein kasutan onartzen dira aldaketa genetikoak xenotransplanteen arrakastaren mesedetan?*
- a) Gizakiarengandik hain hurbil ez dauden animaliekin saiakuntzak egitea helburu dutenean.
  - b) Organoen funtzionamendua eta iraupena hobetzeko direnean.
  - c) Arazo immunologikoak ekiditeko xedearekin egindakoak direnean.
  - d) Arazo fisiologikoak konpontzeko arazo etikorik ez dagoenean.
9. *Herrialde batzuetan animalien organoekin gizakiengan saiakuntzak egiteko baimena laster izango omen da. Zergatik?*
- a) Gizakien organo bat jasotzeko ia aukerarik ez dagoelako.
  - b) Saiakuntzetarako bere burua eskaini duenik ez dagoelako.
  - c) Gobernuek ez dituztelako jendearen eskaerak onartu nahi.
  - d) Herrialde horietan alotransplanteak ez daudelako etikoki ondo ikusita.
10. *Segurtasun-neurri eta kontrol egokiak egitea, nahiz ondorio immunologiko gogorak saihestu daitezkeen ala ez ikertu ondoren...*
- a) saiakuntza klinikoetarako boluntarioak beharko lirateke xenotransplanteekin aurrera jarraitzeko.
  - b) artikulugilea xenotransplanteen teknikari aukera ematearen alde dago.
  - c) saiakuntza klinikoetara boluntario aurkezteko zalantza zientifiko guztiak uxatu beharra dago.
  - d) interes ekonomikorik tartean izan ezean, hobe litzateke saiakuntzak alde batera uztea.

## AZTERTZAILEAK ERABILTZEKO

			Erreferentzia	Azterketa honetan lorturikoa
AHOZKOAREN ULERMENA: guztira			5	<input type="text"/>
IDAZLANA BERA	Edukia *		0-7	<input type="text"/>
	Moldea *		0-8	
	Zuzentasuna *		0-10	
ORTOGRAFIA			5	<input type="text"/>
ESALDIK BERRIDATZI			5	<input type="text"/>
SINONIMOAK			5	<input type="text"/>
IRAKURMENA			10	<input type="text"/>

\* Adierazi gurutze edo zenbaki batez zein alderdi ez duen gainditu.

### Kalifikatzeko irizpideak

*Aztertzaileentzako jardunbidea* liburuko azalpenen eta oharren sintesia.

#### IDAZLANA

**EDUKIA** (0-7) puntu. Honetan adierazia kalifikatuko da, hots, garatzeko eskainitako gaia zein neurritan osatu den:

- Gaiarekin lotura duten / ez duten alderdien garapena.
- Argudio eta adibide asko / gutxi.
- Gutxieneko hitz kopurua.

**MOLDEA** (0-8) puntu. Adierazpena kalifikatuko da, hots, edukia azaltzeko moldearen kalitatea:

- Egitura aberatsak / sinpleak.
- Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
- Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
- Idazlanaren egituraketa orokorra, paragrafoen antolamendua.

**ZUZENTASUNA** (0-10) puntu. Hizkuntz akats nabarmenen arabera kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasuna:

- Deklinabidean: kasu atzizkiak zuzen / oker erabiltzea.
- Aditz mailakoa.
- Perpausen egituraketa.

Hiru alderdi horietakoren batean nabarmenki huts eginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkarra erakutsiz gero, ezingo da *Idazlana* gaindituzat eman.

#### ORTOGRAFIA

5	Oso zuzena
3-4	Akats ez oso larriak
1-2	Akats larri batzuk
0,1-1	Oinarritzkoak edo akats larri ugari

#### ESALDIK BERRIDATZI

Berridatzi den esaldiak honako baldintzak bete behar ditu zuzentzat eman ahal izateko:

- Esaldi bakarra atera behar da berridazketaren ondorioz.
- Eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jaso behar du.
- Eskaintzen den “bidea”ri jarraituz osatua izan behar du, eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izan behar du, osorik.
- Komatxoak-edo erabili badira, horiek adierazten duten elementuen ordenak eta puntua-zioak ere zuzenak izan behar dute.
- Ortografia zuzena izan behar du.

#### SINONIMOAK

Ontzat hartu ahal izateko:

- Testuingurua kontuan hartuta, egokia izatea.
- Bat baino gehiago jarritz gero, denek izan behar dute zuzenak.
- Atzizkiduna bada, atzizki eta guzti emana.

# **EGA**

**AZTERKETA IDATZIA**

**2001eko urriaren 6koa**

**Eredua**

**A**

---

**ENTZUTEZKO ULERMENA - TESTUA**  
**ARIKETEN GILTZAK**

## AHOZKOAREN ULERMENA I

KIKE AMONARRIZ

ARGIA. *Soziolinguista zaren aldetik, zein da Euskal Herrian euskarak bizi duen egoerari buruzko zure diagnostia?*

K. AMONARRIZ. Euskalgintza une honetan *inpaspe* batean dago. 80ko hamarkadan bildutako uztaren fruituak jasotzen ari gara, neurri handi batean. Baina klabe batzuk guztiz aldatu behariko ditugu, inpresioa baitaukat gure esku geneukan belaunaldi bat eskuetatik joan zaigula. Gazte sektore zabal bat bildu da euskararen ingurura, baina Euskal Herrian gutxiengoa da. Nafarroan eta Iparraldean, nahiz eta euskal ereduak matrikulazio kopuruak igo, euskararen erabilera eta kontsumoa denok espero genituenak baino dezente baxuagoak dira. Iparraldean alarma guztiak piztuta daude. Autonomia Erkidegoan ere, euskararen erabilera eta euskarazko produktuen kontsumoan gora egiten ari diren herriak eta zonaldeak azken batean lehendik ere nahikoa esparru euskaldunak ziren. Baina hartzen baditugu hiriburuak eta beren inguruak, Araba ia osoa, Nafarroako zonalde ez euskaldunak edo Bizkaiko alde erdaldun guztia...

ARGIA. *Zer eragin dauka globalizazioak?*

K. A.: Orain arte euskararekin planteamendu dikotomikoa erabiltzen zen, euskara versus erdara eta euskarari eta euskaraz egiteari gainbalio bat ematen genion. Baina gaur egun hirugarren elementu bat agertu da: ingelesa. Gaur gure seme-alabek ingelesa ia etxeko hizkuntzatzat daukate: eskolatan ikasten dute, musika entzuten dute, irakurtzen dute, interneten gauza asko ingelesez ikusten dute; beraz, ingelesa jada ez da arrotzegia. Frantsesa askoz arrotzagoa da Hegoaldeko umeentzat, nahiz 20 kilometrora egon. Haurrentzat ingelesa eta erdararen kontua beste parametro batzuetan kokatu da, beraz: euskara da euren lehen hizkuntza (kasurik onenean), eta eskura dute... Baina, eskuragarritasunaren, erakargarritasunaren eta erabilgarritasunaren arabera erabiliko dute hizkuntza bata edo bestea.

ARGIA. *Nola uztartzen dira umorea eta soziolinguistika?*

K. A.: Beti esan dut soziolinguistikak eta umoreak oinarri bera dutela: jendea. Soziolinguistikak jendearen hizkuntza erabilerak-eta aztertzen ditu, eta umorearen bidez jendea bera aztertzen duzu. Gainera, egoera elebiduna berez da umore gai eta, alde horretatik, soziolinguistika ere bada umore gai. Hemen ditugu, esaterako, erdaraz gaizki hitz egiten duten euskaldunen egoera umoretsuak, euskaraz gaizki hitz egiten duten euskaldun berrien umorea, itzulpenak... Eta bada funtsean oinarritzeko beste faktore bat: gu arrazoi soziolinguistikoengatik hasi ginen umorea euskaraz lantzen, ez arrazoi artistikoengatik. Ez ginen hasi umorea lantzen geure burua kafetegietan txisteak kontatzen ikusten genuelako, euskararen aldeko zerbait berria eta erakargarria egin nahi genuelako baizik. Nire kasuan soziolinguistika eta umorea ezin dira bata bestetik bereizi.

ARGIA. *Umorea egiterakoan zer garrantzi du testuinguruak?*

K. A.: Aurrean dagoenak baldintzatzen du umorearen emaitza. Horren adibide garbia da ironia. Ironia oso arriskutsua izan daiteke, batetik aurrean dagoenak ironia dela ulertzen ez badu, sinetsi egingo duelako. Eta, bestetik, ironia dela ulertzen badu, haserretu egin daitekeelako. Badira txiste batzuk guztiz matxistak direnak, eta koma bat ere aldatu gabe, beste testuinguru batean guztiz feministak gerta daitezkeenak: "Zer da folio zuri bat? Emakumeen eskubideen zerrenda." Txiste horrek, gizona elkarrekin gastronomiko batean kontatuta, edo martxoaren 8ko manifestazioan botata, guztiz kontrako zentzua hartzen du.

ARGIA. *Gaur egun nola dago umorea?*

K. A.: Azken urteetan iraultza bat gertatu da. Antzerkian, literaturan, komikietan, telebistan, irratiaren... euskarazko umorearen lanketa jada esparru guztietara zabaldu da, eta ederki gainera. Hala ere, baditugu oraindik hutsune batzuk: umore hizkera modernoa eta propioa sortu beharra daukagu, erreferente sozial euskaldun gutxi daukagu, eta erregistro asko falta zaizkigu. Hizkuntzaren bilakaera bera eramango du euskarazko umoreak.

## AHOZKOAREN ULERMENA II

ARGIA. *Txisteeek euskaraz ez omen dute graziarik...*

K. A.: Hori ohitura eta adierazkortasun arazo bat da. Hitzek indarra hartzeko erabilera behar dute. Erdarak hedapen mekanismo guztiak izan ditu, eta euskarak apenas. Adibidez, nik askotan egin dudana galdera da: nola esango zenukete euskaraz "el colmo del sastre"? "Colmo" hitza badator hiztegieta, baina ez du ia inork ezagutzen eta, beraz, berdina zaigu hitz hori edo beste bat erabili. Guk "jostunaren demasa" aukeratu genuen. "Demasa" hitza berria da adiera horretan, baina berehala ulertzen da eta adierazkorragoa iruditu zitzaigun. Egoera jakin batzuetan hitz bat gramatikalki zuzena izan liteke baina komunikatiboki ez, eta umoreak bat-bateko erantzuna eta bat-bateko ulermena behar ditu.

ARGIA. *Euskaltzaindia atzetik izango duzue...*

K. A.: Nik dakidala ez, behintzat. Guk beti aintzat hartu izan ditugu Euskaltzaindiaren arauak, noski. Baina fikzioan eta umorean, egoera bakoitzak eta pertsonaia bakoitzak bere "erregistroa" behar du. Film batean, unibertsitate irakasle heldu batek, okupa gazte batek eta nekazari batek ezin dute erregistro bera erabili.

Gainera umorearen funtzio garrantzitsuenetakoa ludikoa da, eta funtzio ludikoak esan nahi du dagoenarekin jolastea, erabili, puskatu, eta gozatzea. Adibide gordinena zera da: bestela ere ez, baina "atsegin zatazkit" esanda ez dela ligatzen. Edo zergatik lortu zuten halako arrakasta "Emoixtaxux muxutxuek" edo "Ai bexamela" bezalako abestiek?

Gai hau oso garrantzitsua da. Asko eztabaidatu da gaur egun gazteek darabilten euskararen kalitateaz, eta azken bolada honetan oso hausnarketa interesgarriak irakurri ahal izan ditugu gai honen inguruan: Zuazo, Lertxundi, Sarasola... Dena dela, garbi izan behar dugu gauza bat: "argotak" eta gazte hizkerak inoiz ez dira gramatikalki "zuzenak" izan, eta gauden egoeran egonda, oso litekeena da haur eta gazteak beren behar komunikatiboei erantzun berriak ematen hastea. Eta hori, nire ustez, ezinbestekoa da euskarak aurrera egingo badu. Joera horiek etengabe zuzentzeak, ordea, haur eta gazte horiek erdararako joera hartzea ekar dezake. Beti ere, ahalik eta hizkuntza oinarrikerik sendoa eta zabalena eskainiz haur eta gazte horiei, noski.

ARGIA. *Txisteen kontrabandorik bada?*

K. A.: Hori beti egon da. Nik badut Kubako txiste kontalari baten disko bat, eta han Fernando Amezketarraren pasadizo bat azaltzen da Santiagoko tradizioari lotuta. Garraiolariak asko hedatu izan dituzte txisteeak, eta gaur internetek zer esanik ez; txiste bat bota euskaraz, eta handik bi hilabetera Australian azal daiteke erdaraz.

Gainera, txisteen mugimendua erabat kontrolagaitza da, askotan oso guretzat dauzkagun istorioak aurkitzen ditugu auskalo non, eta jatorriz gurea ote den dudana jartzen dugu.

ARGIA. *Aurrera begira zer proiektu dituzu?*

K. A.: Orain "Barre busa" programan nabil buru-belarri. Bolada batez kamera aurretik desagertu eta "irudiari" atsedenditxo bat ematea erabaki nuen. Lan honetan oso gustura nabil, baina litekeena da hurrengo urtean, bestelako proiekturen batek ere aurrera egitea eta berriro pantailan agertzea. Txistegintza lantzen jarraituko dut, eta esparru berri batzuk jorrazteko asmoa eta gogoia ere badut. Eta une honetan soziolinguistika alde batera utzita baldin badaukat ere, ez dut baztertu nahi. Eta aurreraxeago begira, jubilatzeko asmoa ere badut.

Estitxu Eizagirre / Ixiar Eizagirre  
ARGIA, 2000-12-24  
(Moldatua)

## AHOZKOAREN ULERMENA

<b>A</b> eredua	1 A	2 B	3 C	4 B	5 D
	6 C	7 C	8 D	9 A	10 A

## ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzun-ereduak)

1. XX. mendearen hasieran **nekez** aurki zitekeen autoa zuenik / zuena.
2. Amandreak gure mutila non zebilen **galdetu zigun**.
3. Langileak lanetik **aberasterik** ez duela / ez daukala behin baino gehiagotan gogoratu zigun aitonak
4. Gehienetan txantxatan ibili / ibiltzen den **arren**, oso haserre ere etorri izan zaigu inoiz. (*Nahiz eta + arren*, txarto)
5. Bilbo handia izanagatik, igandeetan ez da inortxo ere ikusten.
6. Gurasoen arteko liskarra konpontzea **baino** ez zuen lortu.
7. Mikeli eta Ainhoari zazpina euro eman diegu / dizkiegu.
8. Han bakarrik utziz gero edozer **gerta** zekiok.
9. **Hain** da kaskagorra, ez dago zure aita iritiz aldatzeko modurik! (... non / ezen ez **baiz** zure aita iritiz aldatzeko modurik!)
10. Meskitan sartu **ahala** oinetakoak erantzi eta ahuspez jarri **arte** ez dira otoitzean hasten.

## SINONIMOAK (Erantzun-ereduak)

Hemen ageri ez den sinonimoren bat ontzat emateko zalantza izanez gero, jarri ohar bat neurketa-fitxan.

- |   |  |
|---|--|
| 1. <b>maldan</b> : aldapan, aldatsean...                  | 6. <b>azturak</b> : ohiturak, usuarioak...                               |
| 2. <b>ezbaian</b> : dudan, zalantzan, dudamudan...        | 7. <b>Kaiku</b> : kirten, astakilo, lerdo, kokolo, inozo, lelo, ergel... |
| 3. <b>izutu</b> : beldurtu, ikaratu...                    | 8. <b>suntsitu</b> : apurtu, txikitu, triskatu...                        |
| 4. <b>Hausnarketa</b> : gogoeta, azterketa, erreflexio... | 9. <b>setati</b> : temati, burugogor, egoskor, kaskagor...               |
| 5. <b>prest</b> : gertu, pronto...                        | 10. <b>erdeinatu</b> : gutxietsi, mespretxatu...                         |

## IRAKURMENA

<b>A</b> eredua	1 B	2 A	3 D	4 D	5 C
	6 B	7 D	8 C	9 A	10 B